## TOKIKO GOBERNU BATZORDEARI

Igeldoko Toki Erakunde Txikia sortzeko prozesua 2020an hasi zen, eta xede horri ekiteko Udalak batzorde ez iraunkor bat sortu zuen 2020an. Horren ondoren lantalde bat eratu zen batzorde honetako kideekin eta Igeldoko Herri Kontseiluko partaideekin. Bere zeregina Igeldoko TETa definitzeko eta justifikazio memoria osatzeko oinarriak ezarri eta adostea izan zen. Lan talde honek bere lanaren emaitza txosten batean jaso zuen. Txosten horretan aurreikusitako pausei jarraituz, Donostiako Udalak prozesua hasi zuen udalbatzaren 2021eko maiatzaren 27ko erabakiaren bidez.

Prozesu horren baitan, Gipuzkoako udal barrutiak erregulatzeko 2/2003 Foru arauaren 28. artikuluak finkatzen dituen edukiak jasoko zituen azterlana egin behar zen. Dokumentu hori, SIADECOk egindako txosten batetik abiatuta Donostiako Udalaren eta Igeldoko Herri Kontseiluaren artean landu zuten, eskumenen definizio zehatza aurreikusiz, baita berauek transferitzeko prozedurak, aurrekontua osatzeko modua, jatorrizko inbertsioen nondik norakoak eta Igeldoko TETari transferitu beharreko ondarea zein izango zen ere. Horren ondorio izan zen “Igeldoko toki entitate txikiaren proiektua” izeneko azterlana.

Proiektu hau Tokiko Gobernu Batzordearen 2023ko urriaren 10eko bileran onartu zen, eta honen berri eman zitzaion Igeldo herrigunean Tokiko Erakunde Txiki bat eratzea sustatzeko Batzorde ez iraunkorrari. Ondoren onarpen honen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 30 laneguneko epea emanaz alegazioak aurkezteko. Alegaziorik edo ekarpenik ez zen aurkeztu epe horretan, eta Udalbatzaren esku utzi zen espedientea. Udalbatzak 2024ko otsailaren 22an Igeldoko TETari lotutako bi erabaki hartu zituen 2/2003 Foru Arauak toki erakunde txikiak eratzeko prozedurarekin betez:

(1) Igeldoko Toki Entitate Txikia sortzea
(2) Onartzea Igeldoko Toki erakunde Txikiaren oinarria izango zen lurraldeko hautesleei kontsulta egitea Toki Erakunde Txikiaren sorrerari buruzko iritzi ez loteslea jasotzeko

## A LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL

El proceso de creación de la Entidad Local Menor de Igeldo se inició en 2020, y para acometer este objetivo el Ayuntamiento creó una comisión no permanente en 2020. Posteriormente se constituyó un grupo de trabajo con los miembros de esta comisión y los miembros Igeldoko Herri Kontseilua. Su tarea consistió en sentar las bases y consensuar la fase de definición de la ELM de Igeldo y de elaboración de la memoria justificativa. Este grupo de trabajo recogió el resultado de su trabajo en un informe. Siguiendo los pasos previstos en dicho informe, el Ayuntamiento de San Sebastián inició el proceso mediante acuerdo plenario de 27 de mayo de 2021.

En el marco de este proceso debía realizarse un estudio que recogiera los contenidos que fija el artículo 28 de la Norma Foral 2/2003 reguladora de las demarcaciones municipales de Gipuzkoa. Este estudio se elaboró a partir de un informe redactado por SIADECO, y se llevó a cabo entre el Ayuntamiento de San Sebastián e Igeldoko Herri Kontseilua, recogiendo una definición concreta de las competencias transferidas, los procedimientos de transferencia, la forma de confección del presupuesto, la naturaleza de las inversiones originales y el patrimonio a transferir a la ELM de Igeldo. Fruto de ello fue el estudio denominado "Proyecto de Entidad Local Menor de Igeldo".

Este proyecto fue aprobado por la Junta de Gobierno Local en sesión celebrada el 10 de octubre de 2023, dándose cuenta del mismo en la Comisión no permanente para promover la constitución de una Entidad Local Menor en el núcleo de Igeldo. Posteriormente se publicó el anuncio de esta aprobación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, concediendo un plazo de 30 días hábiles para presentar alegaciones. En dicho plazo no se presentaron alegaciones o aportaciones y el expediente fue puesto a disposición del Pleno. La Corporación Municipal adoptó el 22 de febrero de 2024 dos acuerdos en relación a la ELM de Igeldo, conforme a l o establecido en el procedimiento de constitución de las Entidades Locales Menores de la Norma Foral 2/2003. Estos fueron los acuerdos en cuestión:

(1) Acordar la constitución de la Entidad Local Menor de Igeldo
(2) Aprobar realizar la consulta a los electores del territorio que haya de ser base de la

Kontsulta hau 2024ko apirilaren 14an egin zen, eta hautesleek, gehiengo oso zabalez, toki erakunde txikia sortzearen alde bozkatu zuten.

Donostiako Udaleko Alkateak, apirilaren 15ean emaitzak aldarrikatu zituen, eta 2/2003 Foru Arauaren 29.e) artikuluan jasotakoa betez, espedientea Foru Aldundiari bidali zitzaion 2024ko apirilaren 23an, Foru Dekretu bidez ebatz zezan Igeldoko TETaren sorrera.

Ekainean Donostiako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiaren Araubide juridikoko zuzendaritza nagusiaren ebazpen bat jaso zuen, Udal honi errekerimendua eginez toki entitate txikia eratzeko aurkeztu proiektua zuzendu edota osa zezan honako bost puntu hauei zegokienez:

1. Igeldoko Toki Entitate Txikiaren lehen aurrekontua finantzatuko duten sarrera iturrien eta horien zenbatekoen zehaztapena
2. Hurrengo urteetan sarrera horiek eguneratzeko metodologia, kostuen bilakaerari eta eskumen berriak eskualdatzeari egokitzeko
3. Eskualdatu beharreko ondareari dagokionez, emandako zerrendan ondasunok TETari atxikiko zitzaizkiola adierazten zen, baina horrek ez zuen adierazten titularitate aldaketarik. Aldundiaren errekerimenduan *atxikitzea* baino egokiagoa den *eskualdatze* terminoa erabiltzeko eskatu zen. Hartara garbiago adierazten zen ondasunen zein eskubide errealen jabetza TETari eskualdatzen zaizkiola.
4. Bestalde, ondare ondasunen zerrendaren amaieran esaten zen ondasun hauek Igeldoren esku geratuko zirela "Donostiako Udalaren alde gordetzea egokiago jotzen ez den neurrian". Esaldi hori segurtasun juridikoaren kalteko dela joz, kentzeko errekeritu zuen Aldundiak
5. Azkenik, Aldundiak eskatu zuen errekerimendu honen bidez eskualdatuko zen ondare zerrendan jaso behar zela zein

Entidad Local Menor para obtener su opinión no vinculante al respecto de la creación de la Entidad Local Menor

Esta consulta se celebró el 14 de abril de 2024 y los electores votaron, por abrumadora mayoría, a favor de la creación de la entidad local menor.

El Alcalde del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián, con fecha 15 de abril, proclamó los resultados de la consulta, y en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 29.e) de la Norma Foral 2/2003, el 23 de abril de 2023 se remitió el expediente a la Diputación Foral para que, según lo establecido en dicha norma resolviese mediante Decreto foral sobre la constitución de la ELM de Igeldo.

En el mes de junio el Ayuntamiento de San Sebastián recibió una resolución de la Dirección General de Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Gipuzkoa requiriendo a este Ayuntamiento para que subsanara y/o completara el proyecto presentado para la constitución de la Entidad Local Menor conforme a los cinco puntos siguientes:

1. Determinación de las fuentes de ingresos e importes que financiarán el primer presupuesto de la Entidad Local Menor de Igeldo
2. Metodología de actualización de estos ingresos en los próximos años para adecuarlos a la evolución de los costes y al traspaso de nuevas competencias
3. En cuanto al patrimonio a transmitir, en la relación facilitada se indicaba la adscripción de los bienes a la ELM. Pero la adscripción no implicaba el cambio de titularidad de dichos bienes. En el requerimiento de la Diputación se solicitó que se utilizara el término *trasferencia*, más adecuado para expresar la transferencia de la propiedad de los bienes o derechos reales a la ELM que el término *adscripción.*
4. Por otra parte, al final de la relación de bienes patrimoniales se decía que estos bienes quedarían en manos de Igeldo "en la medida en que no se considere más adecuado conservarlos a favor del Ayuntamiento de San Sebastián". Considerando que esta indeterminación perjudica a la seguridad jurídica, la Diputación requirió su eliminación
5. Finalmente, la Diputación solicitó que la

ondasun ziren jabari nahiz erabilera publikokoak, eta zeintzuk ondare-ondasunak.

Aldundiaren errekerimendua aintzat hartuz, “Igeldoko toki entitate txikiaren proiektua” izeneko azterlanean, errekerimendu honetan eskatutakoak jaso ziren ondoren laburbiltzen diren moduan (azterlanaren zuzenketa zein osatzea diktamen honekin doan eranskinean jasotzen dira):

- 8. orrialdean aipatzen da orain arte jarraitu den prozedura, baina baita hemendik aurrera jarraituko dena Gipuzkoako Foru Aldundiaren errekerimenduari erantzuteko.
- 26. orrian 7.4 puntuan azken paragrafo bat gehitu da honako erredakzio honekin: *‘Ondoren ematen diren balorazio ekonomikoak 2021eko aurrekontuetan oinarrituta egin dira’*. Berez esaldi hau sartzeak ez dio errekerimendu zehatz bati erantzuten, baina dokumentua hobe ulertzeko argigarria izan daiteke.
- 42. orriko 7.4.12.d) puntuan, Erdi mailako teknikariaren denerako kostua ondo jarri, denerako batura zuzenduz. Emaitza 27.871,48 eurokoa da. Honek ere ez dio errekerimenduari erantzuten, baina zuzenketa egin behar zen.
- 51 eta 54 orrien artean dagoen 9. atala (Erakundearen aurrekontua horrituko duen zuzkidura ekonomikoa zehazteko formula izenekoa) berridatzi Foru Aldundiaren errekerimenduari erantzuteko. Honek gorago aipatutako Aldundiaren 1 eta 2 eskariei erantzuten die.
- 55. orrian 10. atal berri bat sartu (Igeldoko toki erakunde txikiaren 2024 urteko aurrekontua) Foru Aldundiaren errekerimenduari erantzuteko. Honek gorago aipatutako Foru Aldundiaren 1 eta 2 eskariei erantzuten die.
- 10. atal berria sartzeagatik ondorengo bi atalak 11. eta 12. atal bihurtuko dira. Hau testuaren egokitze hutsa da.
- 12. atala (Igeldoko TETaren ondarea) berridatzi Foru Aldundiak Ondare gaietan egindako eta gorago aipatzen diren 3, 4 eta 5 errekerimenduei erantzuteko, baita argitasuna emateko ondare eskualdatzeari.
- Eranskin bat sartu 2024ko aurrekontuari proposatutako formula aplikatuz egingo den diru zuzkiduraren jatorria eta zenbatekoak azalduz. Eranskin honek gorago aipatutako Foru Aldundiaren lehen

relación patrimonial incluyera la especificación de cuáles de estos bienes tenían carácter demanial y cuáles patrimonial.

Atendiendo al requerimiento de la Diputación, se ha subsanado y/o completado el estudio denominado "Proyecto de la Entidad Local Menor de Igeldo". A continuación se sintetizan los aspectos que se han subsanado y/o completado (la redacción literal tal y como queda se recoge en el anexo al presente dictamen):

- En las páginas 8 y 9 se menciona el procedimiento que se ha seguido y se seguirá para dar respuesta al requerimiento de la Diputación Foral de Gipuzkoa.
- En la página 27, punto 7.4 se añade un nuevo párrafo con la siguiente redacción: ‘*Las valoraciones económicas que se recogen a continuación se han elaborado en base al presupuesto de 2021*’. Esto no responde al requerimiento, pero puede ser adecuado para una mejor comprensión del documento.
- En la página 44, punto 7.4.12.d) se corrige el costo total de la Técnico/a medio por haberse hecho el sumatorio de forma incorrecta. El resultado es de 27.871,48 euros. Esta subsanación tampoco responde al requerimiento, si bien resulta necesario subsanar el error aritmético.
- El capitulo 9 (páginas 53 a 56) denominado ‘Fórmula para fijar la asignación económica de Igeldo’ se ha reescrito atendiendo el requerimiento de la Diputación Foral. Esto responde a los requerimientos 1 y 2 mencionados más arriba.
- En la página 57 se ha introducido un nuevo capitulo 10 titulado ‘Presupuesto de 2024 de la Entidad Local Menor de Igeldo’ en respuesta a los requerimientos 1 y 2 de la Diputación Foral mencionados más arriba.
- Debido a la introducción de este nuevo capítulo 10, los siguientes dos capítulos pasan a ser el 11 y el 12. Esto responde a una mera adecuación del texto.
- Se ha reescrito el capítulo 12 (Patrimonio de la ELM de Igeldo) en respuesta a los requerimientos 3, 4 y 5 de la Diputación Foral arriba mencionados, y con el fin de dotar de mayor claridad a la transferencia del patrimonio.
- Se ha introducido un anexo al estudio que

eskariari erantzuten dio.

recoge el origen y la cuantía de la aportación que se realizará a la ELM de Igeldo, y que se ha calculado en base a la fórmula propuesta. Este anexo responde al requerimiento primero de la Diputación Foral y que se recoge más arriba.

Zuzendu zein osatutako atal hauek egiteko jarraitu behar den prozedura honakoa da:

1. Igeldo herrigunean tokiko erakunde txiki bat eratzea sustatzeko batzorde ez iraunkorraren aurrean aurkeztea Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako errekerimenduaren arabera, Igeldoko toki entitate txikiren proiektuan (2024ko iraileko bertsioa) zuzendu edota osatu diren zatiak.
2. Tokiko Gobernu Batzordean onartzea
3. Zerbitzu orokorren batzordean irizpena eman
4. Udalbatzan onartzea bertaratutako bi hereneko gehiengoz, eta legezko kopuruaren gehiengo absolututz
5. Espedientea Gipuzkoako Foru Aldundiari bidatzea Igeldoko Toki erakunde txikiaren sorrera onar dezan.

Para aprobar las los aspectos subsanados y/o completados expuestos se deberá seguir el siguiente procedimiento:

1. Presentación de las partes subsanadas y/o completadas a requerimiento de la Diputación Foral de Gipuzkoa del Proyecto de entidad local menor de Igeldo (versión de septiembre de 2024) en la Comisión no permanente para promover la constitución de una entidad local menor en el núcleo de Igeldo
2. Aprobación en Junta de Gobierno Local.
3. Dictaminar en la Comisión de Servicios Generales
4. Aprobación en Pleno por mayoría cualificada de dos tercios de los y las concejales presentes, y en todo caso, por mayoría absoluta del número legal de miembros de la corporación.
5. Remisión del expediente a la Diputación Foral de Gipuzkoa para aprobación de la constitución de la Entidad Local Menor de Igeldo.

Kontuhartzailetza orokorrak eta Idazkaritza orokorrak aldeko txostena eman dute.

La Intervención General y la Secretaría General han informado favorablemente.

Azaldutakoaren arabera, Alkateak, honako erabaki hauek hartzea proposatzen du:

En virtud de lo expuesto, el Alcalde propone la adopción de los siguientes:

**ERABAKIAK:**

**LEHENA.-** Gipuzkoako Foru Aldundiaren errekerimendua betez, Igeldoko Toki Erakunde txikiaren proiektua izeneko ikerlana zuzentzea edota osatzea.

**BIGARRENA.-** Igeldoko Toki Erakunde Txikia eratzea berrestea.

**HIRUGARRENA.-** Gipuzkoako Foru Aldundiari espedientea bidaltzea Igeldoko Toki Erakundearen sorrera erabakia onar dezan.

**ACUERDOS**

**PRIMERO.-** Dar cumplimiento al requerimiento de la Diputación Foral de Gipuzkoa y proceder a subsanar y/o completar el estudio del Proyecto de entidad local menor de Igeldo.

**SEGUNDO.-** Reiterar la procedencia de la constitución de la Entidad Local Menor de Igeldo.

**TERCERO.-** Remitir a la Diputación Foral de Gipuzkoa el expediente para la aprobación del acuerdo de creación de la Entidad Local Menor de Igeldo.

Donostia,sinaduraren datan

ALKATEA
Eneko Goia Laso

ZEHARKAKO ZERBITZUEN KOORDINATZAILEA /
COORDINADOR DE SERVICIOS TRANSVERSALES
Edorta Azpiazu Laboa

ZEHARKAKO ZERBITZUEN KOORDINAZIOKO TEKNIKARIA
TÉCNICO DE COORDINACIÓN DE SERVICIOS TRANSVERSALES
Eñaut Apaolaza Amenabar